

# LOMCE EZ, MURRIKETARIK EZ HEMEN GURE HEZKUNTZA

Ugari dira LOMCE legea arbuiatzen dugunon argudioak, eta oso anitzak gara lege horren aurka agertzen ari garenok. STEE-EILAS, ELA eta LAB sindikatuak txalotzen dugu egunotan Wert legearen aurka egiten ari diren adierazpenak.

Izan ere, lege horren erroan asmo zentralizataile eta uniformizatailea dago zalantzarik gabe, Euskal Herrian gure hezkuntzaz erabakitzeke ahalmena suntsitzen dutelarik. Euskararekiko adierazten duen mesprezua nahikoa izango luke lege osoa errefusatzeko. Hori guztia gutxi balitz, baliorik atzerakoienak oinarritzat hartuz adoktrinamendu ideologiko eta politikorako bidea irekitzen du; apezpiku katolikoen zerbitzuan jartzen ditu gure ikasleak, erlijioa ordutegian eta curriculumean indartzeko formulak inposatzen baititu.

Lege horrek ikasleen garapen pertsonala, heziketa integrala eta aukera berdintasuna bilatu beharrean, emaitza akademikoaren baitan hezkuntza ibilbideak finkatzera derrigortzen ditu ikasleak oso goiz; hezkuntza prozesua etengabeko oztopo gainditze lehiaketa bihurtu dute, hezkuntza sistema osoa merkatu eta enpresen zerbitzura jartzeko asmoz. Modu berean, hezkuntza segregatzaile eta klasista bultzatzen ari dira, ikasleen eta ikastetxeen artean lehia areagotuz.

Hezkuntza komunitatearen partehartzeko aukera eta bideak murrizten ditu, hezkuntzan eragileen partehartzea mugatuz eta ikastetxetako kudeaketa demokratikoa oztopatuz.

Zerbitzu publikoak pribatizatzeke joera ere begi-bistakoa da lege honetan. Ikasleak sexuaren arabera sailkatzen dituzten ikastetxeak babesteaz gain, kontzertuak lortzeke bidea erraztuko du lege honek, eta orain arte administrazioak plaza publiko nahiko eskaintzeke zuen beharra desagerraraziko du.

Lege hori salatzean gure hezkuntza sistema defendatzeko eta garatzeko eskubidea aldarrikatzen ari gara, eta, ildo horretatik, argi esan behar dugu ez dagoela hezkuntza sistema egokia eraikitzerik murrizketen bidez, guztiz bestela, gure hezkuntza sistemak baliabide eta inbertsio handiagoa behar ditu eta inolako injerentziarik gabe euskal hezkuntza eragileok eta euskal jendarteak erabaki behar dugu nolako hezkuntza behar eta nahi dugun.

Ez dugu itxaron nahi Madrilgo lege proiektua burutzear egon arte, mobilizatzen hasi behar dugulakoan, martxoaren 2an manifestazioetan parte hartzeke deia luzatzen diegu hiritar guztiei, eta, bereziki, hezkuntza eragileei.

2013ko otsailaren 25ean